

MARIANO OSTOLAIZ.—*Oroipen kutxa*. Auspoa Liburutegia.  
Tolosa, 1985.

Auspoa saileko beste autobiografia bat da. Nik ez dakit nondik edo zelan duen Auspoaren zuzendari den Antxon Zavalak holako egileak aurkitzeko ahalmena, baina meriturik aski badu horretan.

Egileak haurtzaroko dotrinatik abiatuz 1936ko gerratea eta horren ondorengo esperientzia latzak kontaktzen ditu. Kolpe batean irakurtzeko liburu samurra da. Dramatismo handirik gabe, kementsu gainditzen ditu orduko auzi-mauziak. Istilurik ez zen falta, baina Ostolaizek bazuen barrutik berezko indarra ezbehar guziak gogo onez eta umorez eramateko. Nork esan ibilera haiek sagardotegiko giro lasaian bukatuko zituenik, ironiarik harrigarrienez azalduz:

*Etzait ajolarikan  
egon edo ari,  
zurruta egin ezker  
denak bertsolari.*

Guziak horrela hartuko balute bizitzaz jarrera, beste txori batek kantatuko liguke kristauon gizartean.

Liburuak ematen dituen lekukotasunak gure mende honen erdialdiko historia tipiak osatzeko balio handikoak dira. Baina, horrez gainera, liburu hau, edonorrentzat irakurgai atsegina da.